

Bero-beroan

XXI. menderako esloganak

EUSKARA 21EK antolatu du hizkuntza politikari lotutako eslogan lehiaketa. 300dik gora daude webgunean (blog.euskara21.euskadi.net). Hona horietako batzuk:

- ✓ Gure hitza, bere bizitza.
- ✓ Euskara, gure herrialdearen ikurral!
- ✓ Euskaraz hitz egitea bizitzaren oinarria.
- ✓ Castellano bai? Ba, euskara ere bai!
- ✓ Habla euskara eta ikasi!
- ✓ Marea behera eta behera, hori da euskararen egoera.
- ✓ Denok elkartuko gaituen hizkuntza magikoa.

Hedabideez eta publizitateaz

IÑIGO FERNANDEZEK blogean zintzilikatutako artikularen pasarteak segidan: “Aitortu beharra dago euskarazko hedabideak, produktu gisa, pobre samarrak direla askotan, duinak edo onak soilik gehienetan, eta oso-oso gutxitan direla bikainak (...) Produktu bikain bat eduki gabe zaila dago audientzia lortzen. Audientziarik gabe ezin da publizitate inbertsio zabalik erakarri. Eta baliabide ekonomiko sendorik gabe ezin produktua hobetu. Sorgin-gurpil horretan harrapatuta daude euskarazko hedabideak (...) Euskarazko hedabideek ez daukate, oro har, baliabide eko-

nomiko sendorik produktuaren hobekuntzan inbertitzeko. Premia handia dute, ordea, berritzaileak izateko. Are gehiago, esango nuke euskarazko hedabideak behartuta daudela sortzaile izatera (...) Beste hedabideetan ikustera hain ohituta ez gaudena zera da, enpresa talde berekoak ez diren hedabideek beren artean publizitate elkartrukeak egitea. ARGIAren iragarkia *Berrian*, *Berriarena* ARGIAN eta *Elbuayarena Gaztezulon*... Eraginkortasunik ba al dute iragarki horiek? Ez al dute euskarazko hedabideen sektorearen irudi monolitikoa ematen? Euskarazko hedabideak ez al dira elkarren kompetentzia?”.

www.sweetcreeps.com/euskaraz2/index.php

TALAIAN

Europako kapitalismoak erasotzen segiko du

Europako 27ko Lan ministroek ekainean onartu zuten lan astea 65 ordura luzatzeko araua. Joan den astean Europako Parlamentuak izoztu egin zuen araua. Gehiengo absolutuz onartutako emendakinen bidez, gehienez hiru urtetan 48 orduko lan astearen salbuespen guztiak ezabatuko dira. Zaintza denbora guztia lan ordutzat hartzea eskatu da, baita garai inaktiboa ere, esate baterako, ospitalean medikua lo dagoen denbora. 90 egunez negoziatu ahal izango dute Parlamentuak eta Kontseiluak, eta akordiorik ez badago testua bertan behera geratuko da. Europako sindikatuak Bruselan manifestazioa egin zuten lan eskubideak mantentzeko eskatuz.

Europako Kontseiluan eta Parlamentuan lanaldiari buruz egindako eztabaidak erakutsi du Europako merkatariak, Europa kapitalista, Europa antisoziala erakunde europarretan uste baino barnerratuago dagoela. Hartuko den erabakia alde batera utziz, sinesgaitza, bidegabea eta lotsagarria dirudi erakunde europarretan, XXI. mendean, lanaldia 65 ordura luzatzeaz hitz egitea. Atzerapauso onargaitza dirudi. Duela mende bat 48 ordukoaren aldeko aldarrikapena egin zen eta Euskal Herrian baita 35 ordukoarena ere.

Ez da harriztekoa herrialde batzuk lan merkatua desregularizatzearen alde borrokatzea. Beraiek kapitalismo gordinaren *lobby* basatiak erabili dituzte Europako hainbat erakunderengan eragiteko. Oraingo behintzat, haien planek porrot egin dute. Baina, kon-tuz, behin eta berriz itzuliko dira, eta desregularizatzen saiatuko dira, baita beste lan eskubide batzuk ere.

Juan Mari Arregi



DANI BLANCO

Harpidetzak sustatzeko hitzarmena

Kutxako langile euskaldunen artean euskaraz irakurtzeko ohitura sustatu asmoz, urtebeterako hitzarmena sinatu dute ARGIAk eta Kutxak. Akordio horren bidez, ARGIA aste-kariaren harpidetza Kutxako langileei eskaintzeko elkarlana bultzatuko dute sinatzaileek. Kanpaina honetatik etorritako harpidetzen %25 Kutxak ordainduko du, beste %25 ARGIAk, eta gainontzeko %50a harpidea egiten den langileak. Irudian ageri diren Mikel Irizar Kutxako Euskara eta Kultura arduradunak eta Bego Zuza ARGIAko salmenta buruak sinatu dute hitzarmena.

Lau etakideen hautua, Tasio Erkiziaren hausnarketa deia

ETAn sartzen direla publikoki eta argazki eta guzti iragartzen duten lau pertsonak eragin handia lortu dute ekimenarekin. Besterik da zer oihartzunik eman zaion. Hamar kideren izenean egin zuten lauek, baina berria moldean dago, ez kopuruan, ez arrazoietan, ezinbestean urtero dozenaka pertsona sartu behar baitira ETAn, gero diren etakide atxilotuen kopuruak kontuan hartzen badira. Dagoeneko izango dira lauzpabost urte ETak bere komunikazio moldeez hausnarketa egiten zuela *Zutabe* batean eta orduan bere jarduerari beste haiztze molde bat eman behar ziola iragartzen zuen. Aritxulegin etakide armatuek jendearen aurrean egindako agerpena ere molde horretakoa zen.

ETA duela 50 urte sortu zela gogorazten dute eta duela 30 euskal herritarrek ezezkoa eman ziotela Espainiako Konstituzioari, eta funtsean harrez gero borroka armatuarekin jarraitzeko arrazoiek berean dirautela. Gazte askok ez dute ilegalizazio eta espetxe zigorren neurrien gogortze beharrik izan, baina azken urteotako gogortzen neurriak, uxatze baino akuilu dira, eta hor arrazoi dute lau hauek, ETakoak izan gabe ere etaki-



detzat jo dituztelako orain arte. Kutxazain automatiko bat erretzeagatik 10 urteko espetxe zigorra jaso badezake batek, ETArak jauzia emateko bultzada oso agerikoa da.

Ez dakit nola uztartuko den argazkiko lau etakide berrien iragarpena Tasio Erkiziak Jose Miguel Beñaran *Argala*-ren hilketaren 30. urteurrenko omenaldian esandakoarekin, ezker abertzaleak "erresistentziatik eraikuntzara" jo behar duela. Eta bideari erreferentzia eginez: "Estatuari minik handiena egingo dion bidea hautatzeko" hausnarketa egin beharra azpimarratu zuen. Ez dirudi HBko buruzagi historikoa bide armatuaz ari zenik.

Ez da lehen aldia ezker abertzalean, negozioazio saioek porrot egin dutenean eraikuntzaren eskema azalratzearena, Lizarra-Garaziko garaia

ren ondoren, adibidez, antzekoa gertatu zen. Badirudi, hala ere, Tasio Erkiziaren berbek badutela zer ikusirik azken boladan Rafa Diezek eta Arnaldo Otegek indar meta-ketei buruz egin dituzten hainbat hausnarketekin. ARGIAN urriari egindako elkarrizketan Erkiziak onartu zuen ezker abertzalea auto-kritika egiten ari dela, baina barne mailan, egoerak ez duelako beste aukerarik ematen. Ez zaio arrazoirik falta Erkiziari, baina topatu behar dira moldeak gizarteari eztabaiden nondik norakoak helarazteko, beste hainbestetan legez, funtsa erabat desitxuraturik agertzen denean, gero alperrik da esatea komunikazioan huts egin zela.

DEMOEK bitartean, borroka armatuari buruzko eztabaida bultzatu nahi dute eta, besteak beste, bazkaria antolatu dute Mugerren. Bertan, esandako hausnarketa egiteaz gain, borroka armatua bertan behera utzi beharri buruz iritzia agertu duten lau presori sostengua emango zaie -Jose Luis Alvarez Santacristina, *Txelis*, Kepa Pikabea, Carmen Gisasola eta Joseba Urrosolo Sistiaga- eta euren iritzia irainduak izan gabe emateko duten eskubidea aldarrikatuko da.

Padre Orkolaga 56 · 20008 DONOSTIA · Tel.: 943 21 20 51
comunicacion@akelarre.net · www.akelarre.net